

Txotxongiloei agur

24.000 lagunek ikusi dituzte emanaldiak; erakusketa ere arrakastatsua ▶ 2



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ Asteartea ▶ 2006-12-05 ▶ IV. urtea ▶ 1.029. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Bi eskualdeetako diskoak eta liburuak salgai Durangoko Azokan

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

Bihar hasiko da liburu eta disko azokaren 41. edizioa, igandera arte

ESKAINNTZA ▶ 317 erakusmahaia

atundu dituzte guztira Landako erakustazokan ▶ 6-7

IBARRA ▶

Sestaoren aurka berdinduta bigarren da Ibarra

Hiruna berdin zuten Unai Labacaren hiru golei esker ▶ 4

M. SOROA



Haurren heziketa eztabaidagai

IBARRA ▶ Ikasturtea hasi zenetik hilabetero biltzen dira Uzturpe ikastolako ikasleen gurasoak guraso eskoletan. Bertan haurrek jaso beharreko heziketaz jarduten dute —argazkian, atzo Kultur Etxean eginiko bat—. Guztira 3 talde osatu dituzte, haurren adinaren arabera. **MADDI SOROA ▶ 4**

ALEGIA ▶

Azaro Kulturalaren «balantze ona» egin dute

Herritarren ekarpenak «erakargarriena» ▶ 5



Erakusketa Kultur Etxean. n. u.

TOLOSALDEA ▶

Autodeterminazioaren alde, ikaztegietatik Orendainera autoz

15 auto bildu ziren herenegun eskualdeko errepideak zeharkatuz ▶ 5

VILLABONA ▶

Danena-Olaederrako pultsulariek hamairu domina lortu dituzte

Espainiako 17 Urte Azpikoan aritu dira; Espainiako Kluben Arteko Txapelketa jokatu dute hilaren 16an ▶ 3

Izarti
txokolategia

Sortalde, 1 • ANOETA
Tel.: 943 65 19 93

KULTURA ▶

Txotxongiloek maletak egin dituzte

24.000 lagun inguruk ikusi dituzte egun hauetan mundu osoko antzerki taldeek eskainitako emanaldiak; iberiar txotxongiloa erreferente zuen erakusketak ere arrakasta handia izan du

ESTI EZEIZA

Tolosako Txotxongilo Jaialdiari herenegun eman zioten amaiera tolosarrek. UNIMAREN Munduko Kontseiluaren ospakizuna ere hartu du aurtengo edizioak. Atzerriko hamaika herrialdeetatik etorritako hogeita hamaika konpainia izan dira guztira: Argentina, Brasil, Bulgaria, Kolonbia, Costa Rica, Kuba, Ekuador, Mexiko, Portugal, Txekiar Errepublika, Venezuela, Espainia eta Euskal Herrikoak azaroaren 25etik abenduaren 3ra elkartu ziren.

Ikusle kopururari dagokionez, antolatzaileek emandako datuen arabera, hogeita lau milara iritsi ziren. Hauetatik bederatz mila herritako zirkuitoari dagozkio eta gainontzekoak Tolosa izan dira.

Erakusketara ere jende ugari hurbildu da: zazpi mila bisitarik izan dute denera txotxongiloak ikusteko aukera. Erakusketak iberiar txotxongiloa



Igandeko azken saioetako bat, Gaztela eta Leongo (Espainia) Alanimo taldearena izan zen. HITZA

erreferente gisa izan zuen eta ikusgai izan dira Aranburu Jauregian. Erakusketak hain ondorengo egunetan Miarrizteko Le Bellevue Kongresu eta Erakus-

keta zentroan ikusgai egongo da abenduaren 15etik urtarriaren 10era bitarte. «Lehen aldia da erakusketak hain zabala eta sakona egiten dela, XVIII.

mendetik gure egunetarinako txotxongiloen ibilbidea egiten baita», Miguel Arretxe eta Idoia Otegi Titirijaiko zuzendariak dioten bezala.

UNIMA (Txotxongiloaren Nazioarteko Elkarte) Munduko Kontseilua izan da edizio honetako beste arreta guneetako bat. «jaialdiarekin harmonian» bizitu dena. Egitasmo honetan UNIMAK bost kontinenteetan zabaldurik dituen hirurogeita hamar Zentro Nazionalak ehun ordezkarik baino gehiagok parte hartu dute.

Bestalde, CIT-TEEkoek edizio hau nabarmendu nahi dute, «hiriko 750. urteurreneko ospakizun ekintzen barnean gauzatu baita, eta urte hau Tolosa hiriarantzako oso berezia da. Alfontso X. Jakintsuak Hiri-gutuna eman zion eguneko 750. urteurrena ospatzen baitu». Urte osoan zehar, Tolosa 750 Fundazioak zenbait ekintza bereziak antolatu ditu eta beste batzuei lagundu die, horien artean egun hauetan gauzatu den UNIMAKo Kontseilua dago, Idoia Otegi apatu zuen bezala.

IDOIA OTEGI ▶ TXOTXONGILO JAIALDIKO ZUZENDARIA

«Tolosako udazkeneko derrigorrezko hitzordua da txotxongiloena»

Amaitu da dagoeneko 24. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia. Hala, lasaitasunera eta ohiko lanetara itzuli dira berriro

Idoia Otegi eta Migel Arretxe. Biek ere urte ugari daramatzate txotxongiloen jaialdiko antolatzaile gisa.

Zer nolako balantzea egiten duzue aurtengo jaialdiaz?

Balantzea guztiz baikorra da, denera, Tolosako emanaldietan 14.000 ikusletik gora izan dira. Eta hauen gain, zirkuitoko herrietako emanaldietan ere jende ugari bildu da. Aurten 24.000 lagun inguru izango dira. Iaz berriz, denera 22.000 izan ziren eta aurten bi mila gehiago. Beraz, hau ikusita, oso gustora gaude.

Antzerki taldeen maila altua izan al da?

Kalitate handiko antzezlanak ikusi ahal izan dira. Bestalde, aurten, iberiar txotxongiloa zer den erakutsi nahi genuen, eta hau ere lortu dugu.

Zer ikuslego mota izan du jaialdiak?

Denetik izan da, haur nahiz helduak izan dira. Tolosarrek asko gozatu dute jaialdiarekin,

eta Leidor antzokia behin baino gehiagotan bete da. Asteburuetan, sarrerarik ez zegoela adierazten zuen kartela ipini dugu, eta hori hunkigarria izan da guretzat.

Esan daiteke urtetik urtera arrakasta gehiago duela jaialdiak?

Nik uste dut baietz, jendea urtean zehar zain egoten da. Jaialdiko datak gerturazten hasten diren bezala, jendea etortzen zaigu galdetzer, ea noiz jarri behar ditugun sarrak salgai. Tolosako udazkeneko derrigorrezko hitzordua da txotxongiloena.

Aurten lehendabiziko aldiz UNIMAREN kontseilua egin da Tolosan...

Bai, lau urtetik behin kontseilu bat egiten da, hau batzar moduko bat izango litzateke.

Zen erabaki hartu da zehazki Kontseilu honetan?

Datu esanguratsuena da, azkenik, 15-16 urteko eztabaida eta lanen ondoren, Tolosan



AITOR ELDUAJEN

onartu dela Txotxongiloen entziklopedia ofiziala. Honen ondoren, 2008an Australian egingo den kongresuan aurkeztuko da.

Zertan datza txotxongiloen entziklopedia ofiziala?

Txotxongiloen artearen inguruko entziklopedia bat da. Mundu mailakoa da, eta honek mundu guztiko txotxongiloen historia agertuko du.

Datorren urtean jaialdiaren 25. edizioa ospatuko da, zerbait berezia antolatzeko asmoa al duzue?

Modu berezian ospatu nahi dugu. Hala ere, oraindik zehaztu gabe daukagu. Ziurrenik duela urte batzuk arrakasta handia izan zuen estilo bateko saioa ekartzen saiatuko gara: Vietnameko uraren gainean egindako txotxongiloena.

Bestalde, Joan den astean sinatu zuen Tolosako alkateak Espaniako ministeritzarekin Txotxongiloen zentru berria egiteko hitzarmena.

Orain arte ez da horrelako zentruak egon Euskal Herrian. Hala, lehendabizikoa izateaz gain, 24 urte hauetan egindako lanari ematen zaion amaiera ere izango litzateke. Jendea aspalditik ari zen hori eskatzen eta Tolosarentzat oso garrantzitsua izango da. Txotxongiloen arloan, mundu mailan erreferente bilakatuko baillitzateke hiria.

Zen lan burutuko litzateke zentru horretan?

Txotxongiloen egitarau jarraia izango litzateke. Bestalde, dokumentazioarako zentru bat egongo litzateke, baita museo bat ere, tailerrak, eta motorra izango den antzoki bat. Hemen ekintza kultural ezberdinak gauzatu ahal izango dira. ◀

Tolosako Udala

IRAGARKIA

Gobernu Batzordeak, 2006,eko azaroaren 13an egindako bilaren hurrengo proiektua hasiera batez onestea erabaki zuen:

E-46 "Berazubi Mendebaldea" eremuko Xehetasun Azterlanaren Aldaketa.

Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Euskadiko Lurzorua eta Hirigintzari buruzkoak, 98. artikuluan ezarritakoaren arabera, espediente HOGI EGUINEz jenduraren jarrita egongo da.

Espediente jenduraren jartzeko arrazoiak hau da: nahi duen bere interesen alde egokiri irudizko zaizkion errekamazioak aurkezteko aukera ematea.

Iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Diario Vasco, Tolosaldeko Hitza eta Berria argitaratuko da. Aurrian aipatu den epea argitalpen horietako azken iragarpena kaleratu eta biharamunetik hasiko da kontatzen.

Epe horiek dirauen artean, ikusi eta aztertu nahi duenaren esku egongo da espediente Tolosako Udaltzeko Hirigintzako Bulegoan, Plaza Zaharra, 6-B eraikinean. Alegazio edo erreklamazioak erailen horretan bertan dagoen Sarrera Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira alkate-lehendakariari zuzenduta.

Tolosa, 2006,eko azaroaren 27an.
ALKATEA.

VILLABONA-ZIZURKIL ▶ HALTEROFILIA

Hamahiru domina gehiago

Danena-Olaederrako pultsulariak bikain, Espainiako 17 Urte Azpikoan

ERREDAKZIOA

Danena-Olaederra halterofilia taldeak domina ugari eskuratzeko jarraitzen du. Oraingo honetan Espainiako 17 Urte Azpikoan Txapelketan lehiatutakoek hamahiru domina eskuratu zituzten eta beste behin frogatu dute talde indartsuena direla. Dominez gain, EAeko hiru marka berri ezarri zituzten.

Culleran (Herrialde Katalanak) jokatu zuten txapelketa. Iker Hernandezek 50 kiloko mailan brontzezko domina lortu zuen arrankadan eta EAeko bi marka berri ezarri zituen: 73 kilo bi denboratan eta 133 kilo

guztizko olinpikoan. Igor Sasiainek 62 kiloko mailan hiru domina lortu zituen: urrezkoa arrankadan, zilarrezkoa bi denboratan eta urrezkoa guztizko olinpikoan. Horrez gain, EAeko marka berria ezarri zuen: 95 kilo arrankadan. Angel Martinek laugarren postua lortu zuen 69 kiloko mailan.

Σ 77 kiloko mailan bi pultsulari lehiatu ziren. Jon Ander Iriartek hiru urrezko domina eraman zituen, bai arrankadan, bai bi denboratan, bai eta guztizko olinpikoan ere. Mikel Quintanak zilarrezko hiru domina lortu zituen proba berdinetan. Julen Intxaustik, 94 kilo-



Goitik eta ezkerretik hasita: Julen Intxausti, Angel Martin, Igor Sasiain, Jon Ander Iriarte, Mikel Quintana eta Iker Hernandez pultsulariak eta Batis Kortajarena prestatzailea. HITZA

ko mailan, zilarrezkoa lortu zuen arrankadan, brontzezkoa bi denboratan eta brontzezkoa guztizko olinpikoan.

Gustura egoteko emaitzak erdietsi zituzten, beraz, Danena-Olaederrakoek. Hurrengo txapelketa hilaren 16an izango

dute, Zaragozan (Espainia). Bertan jokoan izango dute Espainiako Kluben Arteko Txapelketa.

AMASA ▶ JAIK

Balantze «oso positiboa» jai batzordekoek sanmartinen inguruan

ERREDAKZIOA

Amasako San Martin jaietako jai batzordeak aurtengo festetako «giro ona» azpimarratu du. «Aspaldiko urteetan ez bezala, aurten sekulako eguraldi ona izan dugu Amasako jaietan. Dударik gabe, edozein ekitaldi antolatzeko lagungarria da eta jendearen umorean ere isladatzen da giro on hori», zehaztu dute. «Aurtengo jaien balorazioa oso ona da. Luzeak izan diren arren ekintza asko antolatu dira eta guztietan jendearen harrera bikaina izan da. Honek datorren urterako ere lanerako gogoia pizten digu».

Aurten lehenengo aldiz Martina sorgina jaitsi zuten karpandorretik suziaren jaurtiketarekin batera. «Honek ikusmira handia sortu zuen batez ere herriko haurren artean». Ondoren, Kultur Etxean bertan antolatu zuten sukaldaritza ikastaroan parte hartu zutenek bi hilabeteetan ikasi zutena praktikan jarri eta «pintxo zozagarri» batzuk eskaini zizkion jendeari.

Garzteen Egunak ohi bezalako arrakasta izan zuen. «Lehenengo eguna bezain ongi edo



Garzteen Egunean erromeria giroan aritu ziren. HITZA

hobeto igaro genuen. Goiz-goizetik hasi eta egun osoko festa giro paregabea gozatu genuen 45 gaztek. Neska eta mutil baserriarrez jantzita erromeri giroan alai ibili ginen».

Pirritx eta Porrotx pailazoan emanaldiak eta Bakailao Lehiaketak ere ohiko arrakasta lortu zuten. «Pailazoen frontoia haurrez betetzea lortu zuten, azpimarragarria da benetan urterotzat izaten duten arrakasta. Gainera aurten beren abestia

den *Maite zaitut, maite maite zaitut! pila pila pila patata tortila!* ere entzuga izan da gazteen ahotan gauetako parrandan». Bakailao Lehiaketan 20 partaide izan ziren sukalde lanak egiten.

San Martin Egunean asto karrera egin zuten, aspaldiko urteetan eguraldi kaxkarragatik atzean utzi izan dutena. «Baina egun honetako ekintza arrakastatsuen dudarik gabe Abi-ba Dja izan zuen. Sekulako gazte

pila erakarri zituen Djak, aurten bigarren urtez bere jarraitpenaren lekuko izan gara». Hurrengo egunean ume krosa izan zen. Urtero larunbatez egiten den arren, San Martin Eguna zela-eta aldatu egin zuten. «Agian arrazoi hori dela medio haur gutxiago aurkeztu ziren lasterketara».

Aurten lehenengo aldiz Amasako sanmartinek bi aste-buruko iraupena izan dute. Izan ere, urtero herri bazkaria lehenengo larunbatean egiten den arren, bazkariaren antolatzailen iritziz ez zen egokia San Martin Egunean herri bazkaria jartzea. «Beraz, bigarren asteburuan jarri genuen eta mendiatoiarekin asteburua osatuta gelditu zitzaigun». Hala ere, gehiago osatzeko herri bazkariaren aurretik apustua egin zuten herriko Andoni Zurriarrain eta Jokin Etxeberriak, Orendaingo Urki eta Balaorraingo Arkaitz Arteagaren aurka. Binaka lokotx biltzen eta segan lehiatu ziren.

Herri bazkariak «urteroko arrakasta izan zuen. 300 lagun bazkaltzen eta inor ez zen goseak irten frontoitik». Ondoren jaietan zehar egindako argazki lehiaketaren proiektzioa egon

zen. «Ekitaldi entretenigarria eta polita», herritarren iritziz.

Azkenik, XIV. mendiatloian 62 partaide aritu ziren. Gizonetzkoetan Kepa Txapartegi izan zen irabazlea, bigarren Jon Erguin eta hirugarren Ugaitz Artola. Emakumezkoetan Ines Arraitunandia izan zen irabazlea. Herrikoen artean, Ugaitz Artolaren ondoren Karlos Gallarraga sailkatu zen.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Furgoneta. Volkswagen Caravelle, NA-AD, 8 plaza. 2400 diesela. 600 26 69 28.
Sutarako egurra. Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. 615 75 57 62.

LANA

Iturgina. Iturgin lanetarako pertsona bat behar da. 656 41 68 08.
Banatzaila eta laguntzaila. Gabonetan dirua irabazi nahi duzu? Bi lanpostu eskaintzen dira: banatzaila, asteburuetan; laguntzaila, asteazkenetan. 943 65 12 26 (09:30etik 13:30era).

IBARRA ▶

Hiruna egin zuen Ibarrak Sestaoren aurkakoan

ERREDAKZIOA

Norgehiagoka «arraroa izan arren», puntu bat eskuratu zuen Ibarrak pasa den larunbatean Sestaon bertako taldearen aurka hiruna berdindu ondoren.

Prentsa arduadun Jose Manuel Tobiasek azaldu zuenaren arabera, «sekulako partida egin zuen Unai Labacak» izan ere, bera izan zen norgehiagokako hiru golak sartu zituen jokalaria. Partidako lehen gola laugarren segunduan sartu zuen. Bigarrena jaurtiketa indartsu baten bitartez burutu zuen laugarren minutuan. Norgehiagoka berdintzeko sartu zuen hirugarren eta azken gola taldeko jokoaren emaitza izan zen. Gogoratu, Ibarrak sailkapen orokorreko 2. postuan jarraitzen duela.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411

- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larriald.: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzio Klinikak 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

- ▶ **DYA:** 672536
- ▶ **Gurutze Gorria:** 674888
- ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
- ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzarar autob.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurrarrendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

IBARRA ▶ GIZARTEA

MADDI SOROA

Urteko laugarren saioa bete zuen atzokoan Ibarrako Uzturpe ikastolako guraso eskolak. Hitzak berak dioen bezala, gurasoak elkartzen dira, emakumezkoak gehienak, eta euren seme-alaben inguruko kezketaz hitz egiten dute Maria Jesus Uranga familiar terapeutarekin batera.

Guraso eskolan ez da gai zehatzik lantzen; haurren heziketa abiapuntu hartuta, gurasoek landu nahi dituzten kontzeptuak lantzen baitira, parte hartzen duten gurasoen nahien arabera gaiak, hain zuzen ere; hala nola, haurren heziketan aitez betetzen duten papeira edota hurrek hazten ari direnean sentitzen duten aitaren nahiz amaren beharra.

Guraso eskola ez da terapia talde bat, ez eta ikasketa gela bat ere. Aitzitik, guraso eskola topagunea da, gogoetak egiteko, beste guraso batzuekin hitz egiteko, kezka elkartrukatzeko, esperientziak kontatzeko, etabar.

Guztira hiru talde batzen ditu guraso eskolak, haurren adinaren arabera taldeetan banatzen direlarik, lehenengo mailako haurren taldea, bigarren mailakoena eta gaztetxoena.

Atzokoan, 2. mailako haurren gurasoek mota ezberdinetako adierazpenak egin zituzten Guraso eskolan ikasitakoaren harira, «pertsonea bezala laguntzen zaitu guraso eskolak, ama bezala ere bai, eta ikasitako hori haurrei helarazteko gaitzara». Beste hainbatek «esperientziak elkartrukatzeko» gu-

Haurren heziketaz kezkatu daude Ibarrako gurasoak

Uzturpe ikastolako guraso eskolan haurren heziketaren inguruan mintzatzen dira; atzo laugarren bilera izan zen



Atzo arratsaldean, Ibarrako Kultur Etxean buruturiko guraso eskolako une bat. M.SOROA

netzat dute eskola, baita «seguruago sentitzeko ere». Izan ere, hurrenganako esperientziak elkartrukatu eta beste gurasoen bizipenak entzunda

«lasaiago» sentitzen direla azaldu dute.

Guraso eskolan parte hartzen duten gurasoak hilabetean behin elkartzen dira Kultur

Etxe lehenengo solairuan. Gogoratu, datorren zita 2007ko urtarrilaren 29an izango dela talde bakoitzari dagokion orduan.

BELAUNTZA ▶ KULTURA



Soldaduskako gora-behera umoretsuak

Erredakzioa ▶ *Errelebo* antzezlanak Belauntzako Kultur Etxea hartu zuen une batez pasa den ostiral gauez. Bertan izan ziren Iker Galartza eta Joseba Usabiaga soldaduskako gora-behera era umoretsuan kontatzen. Algecirasen (Espainia) topo egindako bi euskaldun soldaduska egiten ari dira, bata beteranoa da, bestea, berri, hasiberria. Gau batean, elkarren esperientziak eta bizipenak konpartituko dituzte. *Errelebo*a antzezlanak soldaduskaren absurdua isladatzen du, gaia abiapuntu hartuta, herri mina bezalako baloreak lantzen dituelarik. HITZA

ALEGIA ▶ AZARO KULTURALA

Herritarren ekarpenak deigarrienak

Balantzea «oso ona» izan dela adierazi dute kultur batzordeko kideek

NEREA URBIZU

Azaro Kulturalaren balantzea «oso ona» izan da. Kultur Batzordekoek pasa den ostegunean egindako bilera hilabete zehar egindako ekitaldi guztiak gogoratuz azterketa egin dute eta «pozik» daude emaitzarekin.

Monika Atxutegi kultur dinamizatzaileak esan zuenez, «orokorrean jendea ere gustura dago eskaini ditugun ekitaldiekin. Arrakasta gehien izan dituztenak herriko argazki erakusketa, dantzari txikien eguna eta Joxe Gastesiren hitzaldia izan dira, dudik gabe». Hala, «adin ezberdineko jendea ibili» zela gaineratu zuen kultur dinamizatzaileak. Argi du ere, «herriarekin loturik dauden ekitaldiek jende gehiago erakartzen» dutela «hauen ekarpenak izan dira erakargarrienak». Atxutegiren ustez, «umeei zuzendutako pailazoen saloak, txotxongiloak eta ipuin kontaketa ere ume pila bildu zuten».

Mendiarekin loturiko hainbat ekitaldi egin zituzten: esate baterako, Artikutzara mendira irteera. «Bi autobus joan ziren Goizueta aldera, eta honekin lotutako Ibon Azpilikueta hitzaldira ume pila joan zen

ere». Ezin berdina esan, ordea, helduei zuzendutako hitzaldia. «15 bat lagun bildu ziren hau ikustera. Ondoei buruzko hitzaldia zen: agian, ez dugu

gaiarekin asmatu... ez dakigu zer izan daitekeen».

Kutxak antolatuta eta babestutako Antxon Iturrizaren proiektioa bertan behera geratu zen, «gure erruz: arazo teknikoak izan genituen eta ezin izan genuen martxan jarri».

Alegiar askok Txalo taldeak antzeztutako *Erreleboa* antzerki gozatu zuen: «barre asko egin zuten joan zirenek, 160 bat lagunek, hain zuten. Pentsa: horrelako gehiago ekarri behar ditugula esan ziguten».

Bestalde, Joxe Gastesiren hitzaldian lehen atala bakarrik landu zen, eta bigarrena, hau da, gerra ondoko kontuak, aurrerago egiteko asmoa erakutsi zuen.

Hurrengo azaroan «berriro»

Hurrengo urtean berriz egiteko asmoa erakutsi dute kultur batzordekoek: «argi daukagu bide honetatik jarraituko dugula, azaro osoan zehar ekitaldiak antolatuz eta antzeko egitaraua eginez». Faltako ez dena, «umeei zuzentzen direnak eta helduentzako antzerki bat izango dira. Askotan, arrakasta handia izango duen hitzaldia ekarri dugula iruditzen zaigu, baina erantzuna ez da espero duguna izaten; hala ere, saiatuko gara berriro ere».

Txintzarri Eguna «azaroan egiten jarraituko dute, baina Loatze eguna ezin da jakin, urtero aldatuz joaten baita».

euskaltel
ZURETZAT



Birsortzen ari gara beti. Aurrera egiten, aurrerapausoak behin eta berriz ematen. Egutero, pauso oro, mugimendu oro, beti aurrerantz. Horrelakoak izan gara beti. Gure irudi berria da. Zuretzat. Kontua ez da zertarako egiten dugun aurrera, norentzat baizik.

- ▢ Zuntz Optikoa
- Finkoa + TB + Banda Zabala
- ▢ Mugikorra

AMEZKETA ▶

Santa Luzia eguneko afaria emakume guztientzat

Jubilatuak elkartera joateko ezinbestekoa izango da izena aurretik ematea

N. URBIZU

Urtero bezala Amezketa Udalak Santa Luzia eguneko emakumeentzako afaria antolatuta du. Jostunen eguneko afaria, hilaren 13koa, alegia, festa girokoa izango da.

Ugarteko eta Amezketa bertako emakume guztiak daude gonbidatuta. Jubilatuak elkarrekin izango da, goiko lokalean, 20:00etatik aurrera. Honetarako izena ematea beharrezkoa izango da, epea hilaren 10era arte izanik, lokalean bertan. Egutegian bertan, musika izango dute emakumeek, Larraizko Jexuxen Jazzbanda, hain zuzen.

ALEGIA ▶

Nesken Intxurre areto futbol taldeak ez du jokatu

N. URBIZU

Nesken Intxurre areto futbol taldeak larunbatean zuten Zaldibian partida. Arbitroa ondoezak zegoela eta, bertan behera geratu zen neurketa. Oraindik ez dute zehaztu noiz jokatu duten larunbatean jokatu beharrezkoa. 19 punturekin jarraitzen du taldeak 3. postuan.

Bigarren mailan dauden eskualdekakoek Alegian galdu zuten: sartutako bi golak ez ziren nahikoak izan, Lasallek 3 egin baitzuten.

Jubenilek partida irabazi zuten Villabonako kontra, 3-1ekoa eginez. Kadeteek, aldiz, galdu egin zuten Villabonaren aurka: 7 gol jaso zituzten, eta alegiarrek, berriz, 2 egin zituzten bakarrik.

Hurrengo norgehiagoketan neskek Zestoa A izango dute arerio, lurraldekakoek Ikasberri eta jubenilek eta kadeteek, berriz, Idiazabal. Aurrerago ordutegi eta egunak zehazten joango dira.

AUTODETERMINAZIOA ▶



Ikaztegietatik Orendainera ordu batean

N. Urbizu ▶ 15 autok egin zuten igandeko autodeterminazioaren aldeko auto karabana. Ikaztegietak kiroldegian elkartu eta denak poliki-poliki Alegia aldera jo zuten, ordu eta laurdenez. Altxotik Amezketa-ra, eta handik Larraitzera igo ziren, Abaltzisketatik Orendaineraino joateko. Han 20 bat lagunek bazkaldu zuten, elkartean. Dena lasai joan bazen ere, ertzainak inguruan izan zituzten une batzuetan. NEREA LIZARITZA

DURANGOKO AZOKA ▶

Liburuen paradisia... eta beste

Bihar hasiko da Durangoko 41. Euskal Liburu eta Disko Azoka; bi eskualdeek izango dute ordezkari

ERREDAKZIOA

1965. urtean antolatu zuen Gerediaga elkarteak I. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka. Hala, aurtengoa 41. edizioa du eta bihar zabalduko ditu bere ateak. Bost egunetan zehar, bezaz, euskal kulturaren ardatza izango da Durango. Eta, urtero bezala, berrikuntza ugari izango da bertan eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko idazle eta musikariren lanak ere ikusgai izango dira erakusmahaietan zehar.

Liburuaren artean asko azpimarra daitezke. Eleberrien atalean, Iturralde iragan asteen aurkeztu zuen *Hyde Park-eko hizlaria*, Mujikaren *Aita Estanis* edota Tolosan bizi den Joxan Oiz donostiarraren *Beñat Dardo*. Narrazio alorrean Karlos Linazasororen *Bestiariora. Hilerrikoak* lana ere aipagarria da. Baina ez da honakoa tolosarrak aurkeztuko duen liburu bakarra. Durangora ere eramango baititu *Beti eder dena*



Ezker-eskuin eta goitik behera: Linazasoro, Iturralde, Igerabide eta Anaut. HITZA

eta haur eta gazte literatura saileko *Hogeita sei urte geroago* lanak. Leitzaldeko ordezkariak ere izango da azokan, David Anauten eskutik, *Txokotik zabalera* lanarekin.

Azoka bisitatu dutenek jakin badakite ez direla bakarrik liburuak topatzen azokan. Hala, diskoak ere salgai izango dira. Eta hauek dira, hain zuzen ere, gure eskualdeko musikariek aurkeztuko dituzten disko berriak: Bide Ertzean talde tolosarrak, Gaztelupeko Hotsak diskoetxearen eskutik, *Non dira* azken lana aurkeztuko du. Eta Bonbereneak *Bonberenea Suffle* DVDa ere izango da erosgai. Aipatutakoak, dena den, bi eskualdeetako uzta oparoaren fruitu gutxi batzuk besterik ez dira.

Egitarau oparora

Bihar argitaletxe eta diskoetxe-etako arduradunen joan-etorria izango da nagusi Landako erakustazokan. Guztira, 317 stand prest utzi beharko dira-eta biharamunerako. Ikasleen eta profesionalen egun berezirik ez du izendatu aurrean Gerediaga Elkarteak. Azoka egunak, jai egun artean eta zubi bat tarteko dela izango direnez, hartu dute erabakia antolatzaileek. Hala ere, abenduaren Trako, gazteei begira, Txan magoaren ekitaldia, *break dance* emanaldia, ilustrazio tailerra, edota kirolarien irakurzaletasunari buruzko maingurua antolatu dituzte.

Azoka bost egunez izango da zabalik, asteazkenetik igandera. Orduetegiari dagokionez, goizeko 10:30etan zabalduko ditu ateak eta arratsaldeko 20:30etan itxi. Eguerdietan ere zabalik egongo da. Durangora datozen bisitariak bi gomendio nagusi egiten diete antolatzaileek. Batetik, ahal dutenek, garrario publikoa erabiliz etortzeko. Eta bigarrenik, kotxez datozenek aparkatzeko, Durango kanpoaldean egokituko diren aparkalekuak erabiltzeko.

Azokaren jatorria

Ez ziren ez urte errazak euskal kulturarentzat eta azokak bide berri bat ireki nahi zuten. Esan bezala, Durangoko lehenengo euskal liburu eta disko azoka 1965ean egin zen. Gerediaga elkarte sortu berriak antolatu zuten lehen ekitaldietako bat izan zen. Helburua, frankismo-

ESKUALDEKO PRODUKTUAK AZOKAN ▶

LIBURUAK

- ▶ Arantxa Iturberen *Kontujaten*, Alberdania argitaletxea.
- ▶ Luis Mari Mujikaren *Aita Estanis*, Hiria argitaletxea.
- ▶ David Anauten *Txokotik zabalera*, Alberdania argitaletxea.
- ▶ Juan Kruz Igerabideren *Hamar oilo gara*, Ibaizabal argitaletxea.
- ▶ Joxemari Iturraldearen *Hyde Park-eko hizlaria*, Pamiela argitaletxea.
- ▶ Karlos Linazasororen *Bestiariora. Hilerrikoak*, Elkar argitaletxea.
- ▶ Xabier Olarreren *Txakurrari gauean gertatutako istripu bitxia*, Igela argitaletxea.
- ▶ Joxemari Iturraldearen *Filipinetan bizi den idazlearen kontuan*, Pamiela argitaletxea.
- ▶ Juan Kruz Igerabideren *Ilargia ezpainetan*, Erein argitaletxea.
- ▶ Pello Joxe Aranburu / Luis Mari Intzaren *Norteko Trenbidearen erainkuntza, ebaluaketa eta ondorioak Gipuzkoan*, Eusko Tren/Eusko Jaurjaritza.
- ▶ Karlos Linazasororen *Beti eder dena*, Erein argitaletxea.
- ▶ Joxi Ubedaren *BAP ta bestela, ondo?* Paper Hotsak argitaletxea.



luz, Txalaparta argitaletxeko erakusmahai; aurrean ere bertan izango dira. LUIS JAUREGIALTZO/ARGAZKI PRESS

- ▶ Antonio Zavalaren *Auspoaren auspoa IV*, Gipuzkoako Foru Aldundia.
- ▶ Antonio Zavalaren *Oinez eta jakin miñez III*, Gipuzkoako Foru Aldundia.
- ▶ Karlos Linazasororen *Hogeita sei urte geroago*, Erein argitaletxea.
- ▶ Pello Zabalaren *Zeruan zer berri?*, Alberdania argitaletxea.
- ▶ Juan Kruz Igerabideren *Gu bai bizkorrak*, Ibaizabal argitaletxea.
- ▶ Luis Mari Mujikaren *Poemak II*, Hiria argitaletxea.
- ▶ Luis Haranburu Altunaren

- Euskararen doluminak*, Elea argitaletxea.
- ▶ Joxan Oizen *Beñat Dardo*, Susa argitaletxea.
- ▶ Juan Kruz Igerabideren *Txoria*, Alberdania argitaletxea.
- ▶ Antonio Zavala eta Joxemari Iriondoren *Martin eta Xalbador, besoa sorbalda gainean*, Gipuzkoako Foru Aldundia.
- ▶ Orixerren (Nikolas Ormaetxearen) *Gutunak*.
- ▶ Iñaki Zubeldiaren *Ama!*, Edebed-Giltza argitaletxea.
- ▶ Iñaki Zubeldiaren *Josu Azalaren abenturak*, Ibaizabal argitaletxea.

- ▶ Iñaki Zubeldiaren *Oparirik ederrera*, Desclee de Brouwer argitaletxea.
- ▶ Iñaki Zubeldiaren *Tximu bat klinikan*, Ibaizabal argitaletxea.
- ▶ Iñaki Zubeldiaren *Haur literatura aztergai*, Egan argitaletxea.

DISKOAK

- ▶ Bide ertzean talde tolosarraren *Non dira* azken lana, Gaztelupeko Hotsak diskoetxearen eskutik.
- ▶ Bonbereneako *Bonberenea Suffle* DVDa, Gor diskoetxearen eskutik.

ORDUTEGIA ETA EGITARUA ▶

ORDUTEGIA

Igandera arte. Egunero, 10:30etik 20:00etara zabalik.

BIHAR, ASTEAZKENA

12:30. Azokaren inaugurazio ekitaldia. Sarrera hitzaldia: *Kásmuko hilarriak. Poesia garai globalean.* Kirmen Uribe idazlea. Elkartegian.
16:30. *Nomadak Tx* filmaren emanaldia. Elkartegian.
18:00. Mahaingurua: Euskal Herriko musikarien birak. Partaideak: Iñaki (Betagarri), Igor Otxoa (Oreka Tx) eta Iñigo Muguruza (Sagarroi). Moderatzailea: Roberto Moso. Elkartegian.
22:00. Bertso saioa: *Txapeldunek Txapeldunari: Felipe Arrese Beitari omenaldia.* Bertsolariak: Xabier Amuriza, Sebastian Lizaso, Igor Elortza eta Unai Iturriaga. Gai-jartzailea: Josu Goikoetxea. San Agustin Kultur Gunean.
22:00. Rock Kontzertua Plateruena Kafe Antzokian. Kerobia eta Stupenda Jones.

ETZI, OSTEGUNA

11:00. Txan Magoa, Break Dance, Bertso hip-hop. Ekitaldian Gerediaga Literatura

lehiaketako sari banaketa egingo da. Elkartegian.
12:00. Aurkezpena Txalaparta eta Ekin argitalebeek *Instituciones jurídicas vascas* liburua. Elkartegian.
12:30. Aurkezpena Elhuyar hiztegiaren 10. urteurrena. Elkartegian.
16:00. Ilustrazio tailerra, Euskal Herriko Ilustratzaileen Elkartearen eskutik. Irakaslea: Dani Maiz. Elkartegian.
18:00. Mahaingurua: Kirolariak irakurle. Partaideak: Mikel Astarloza (txirindularia), Oier Zearra (pilotaria) eta Josune Bereziartu (eskalatzailea). Moderatzailea: Asier Aranguren. Elkartegian.
20:30. 2006 Durangoko Argizaiola omen-saria Jakin Aldizkariari emango dio Gerediaga Elkarteak *Gauean Argi* ekitaldian. San Agustin Kultur Gunean.
21:30. Kultura Arteko Kontzertua Plateruena Kafe Antzokian. Karidadeko Benta eta Pata Negra.

HILAREN 8A, OSTIRALA

12:00. Mahaingurua: *Esloveniako literatura eta euskal literatura. Gaur eta bihar.* Partaideak: Alojz Ihan (idazle esloveniarra), Vládo

Zabot (Esloveniar Idazleen Elkarteko presidentea) eta Asier Agirre euskal idazlea. Moderatzailea: Juan Ramon Makuso. Elkartegian.
13:30. Aurkezpena EuskAleman kultur elkarteak, euskara eta alemanaren ikasmateria, itzulpengintza eta literatura arloko argitalpenak. Elkartegian.
16:30. Aurkezpena Atartek *Markina-Xemeingo ipuin zaharrak* DVDa (Emanaldia izango da). Elkartegian.
17:30. Aurkezpena Gerriko Ikerlan Bekako azken emaitza: *Zergatik euskaraz. Goierriko Euskalgetietako ikasleen motibazioak. Azterketa psikosoziolinguistikoa.* Elkartegian.
18:00. Aurkezpena Leioa Kantika Koralak *Kantika* CD-DVDa. Elkartegian.
18:30. Aurkezpena Badihardugu Elkarteak Koldo Zuazoren azken liburua. Elkartegian.
19:00. Aurkezpena Euskararen banderaren erakustaldia (Urtzi Ihitza). Elkartegian.
20:00. Durangon Folk Jaialdia Kriskitin dantza taldeak antolatuta. Dantza ikuskizuna. San Agustin Kultur Gunean.
22:00. Rock Kontzertua Plateruena Kafe Antzokian.

Kepa Junkera abeslariaren eskutik.

HILAREN 9A, LARUNBATA

12:00. Mahaingurua: *Bidaia nahi erara.* Partaideak: Jon Maia, Josu Iztueta, Jon Arretxe eta Ander Izagirre. Moderatzailea: Jon Abril. Elkartegian.
12:00. Durangon Folk Kalejira Durangoko kaleetan. Partaideak: Murtziako Villa de Alhama taldea, Landetako Groupe Folklorique de Soustons, Soraluzeko Galtzagorriak txaranga, Durangoko Txiri-Txiri taldea eta Kriskitin dantza taldea.
13:30. Aurkezpena EuskalKultura.com ataria eta buletina. Elkartegian.
17:00. Estreinaldia Euskal Herrian *Gora Vasco! (Milonga de temple y carretilla)* film argentinarra. San Agustin Kultur Gunea.
17:30. Remigio Mendibururi buruzko liburu bi: *Acanto ciego* eta *Molorraika itsu.* Elkartegian.
18:30. Elkarriketa. Lorea Madina kazetariak Roge Blasco Radio Euskadiko *Levando Anclas* bidaia-irratsaioko esateria aurrez aurre izango du. Elkartegian.
20:15. Txistua XXI. Mendean

Berzitu Txistuzale Elkarteak antolatuta. Santa Ana elizan.
22:00. Poesia emanaldia Eslovenia-Euskal Herria. Partaideak: Miren Agur Meabe, Igor Estankona, Pello Otxoteko eta Alojz Ihan. San Agustin Kultur Gunean.
22:00. Rock Kontzertua Plateruena Kafe Antzokian. Rafa Rueda, Txuma Murugarren eta Petti.

HILAREN 10A, IGANDEA

12:00. Mahaingurua *Eubako pasiotarrak: 50. urtemugan.* Partaideak: Antton Mari Aldekoa-Otalora, Jose Mari Iriondo eta Gregorio Arrien. Elkartegian.
13:30. Aurkezpena *Uribarriko Andra Mari katea ez da eten* DVDa. Zuzendaria: Andoni Aranburu. (Emanaldia egongo da). Elkartegian.
17:30. Aurkezpena Eguzki Bideo Kolektiboak *Ezkaba. La gran fuga de las cárceles franquistas* DVDa. (Emanaldia egongo da). Elkartegian.
19:30. Kale-antzerkia *Eskeletoak* Goloka antzerki taldea. Azoka barruan.
20:00. Plateruena Kafe Antzokian: Urgabe. **Oharra: Haurrei zuzendutako egitaraua ez dago zehaztuta.*

aren diktadurapeko urte hailetan, Euskal Herrian zegoen liburugintza eta diskogintzaren ekoizpena ezagutzera ematea zen. Helburu nagusia hori bazen ere, euskalgintzan jardunean zebiltzan sektoreen topalekua izatea ere lortu nahi zuten Gerediaga elkarteak.
Lehenengo Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka Andra Mariko elizpean egin zen eta abenduan ezik, zemendiarren 1ean, Domu Santu egunez antolatuta zuten. Garai hailetan Andra Mariko elizpean Durango eta inguruko baserritarren produktuen merkatua egiten zen larunbata goizetan. Inaugurazio ekitaldia larunbatean izan zen eta azoka egunean ere

merkatua egin zen. Merkatua amaituta, bizpahiru ordutan egin zen arratsalderako inaugurazio ekitaldirako muntaia guztia. 19 parte-hartzaile izan zituen hasierako Azokak.
Odorengor urteetan, 1974. urtera arte, gune berbera izan zuen azokak. Urtebeteko etenaldiarekin, baina. Izan ere, 1967. urtean ez zen Azokarik egin, elizaren konpontze-lanak zirela eta. Hasieratik traba handiak ipini zizkien gobernadoreak azoka antolatzeaz arduratzen zirenei. Hori dela eta, 1974. ean merkatu plazara eraman zuten azoka, 1996.era arte bertan egin delarik.
Elkartearen lanaren emaitzaren ondorioz merkatu plaza



Landako erakustazoka bost egunez kultur gune izango da. HITZA

ere ez zen nahikoa izan eta 1996. urtetik Durangoko leku ezberdinetan karpak altxatu eta Azoka karpapean egin ondoren, 2003. urtetik Euskal Liburu eta Disko Azokak orain, behin betiko kokapen duina du Landako Erakustazokan.
Lan honi esker abenduko egun hauek euskaldunen urteroko topaleku izatera heldu dira. Bertan biltzen dira mota guztietako idazleak, abeslariak, irakurleak, pertsona nagusiak, gazteak, gizonak, emakumeak... Azoka euskera eta euskal kulturaren erakustoki erraldoi eta gure kulturaren jai nagusi bihurtzen da urtero. Tolosaldeak eta Leitzaldeak, nola ez, bertan ere badu tokirik.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldekohitza.nfo

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2006ko abenduaren 5a, asteartea ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA goizez arratsaldez beroena **16** hotzena **11** BIHARKO EGURALDIA goizez arratsaldez **HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA** 902 82 02 01
(balantza argizkeko, harpidetun egileko...)

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Tolosa. Apaiz bokazioen aldeko otoitzaldia 20:00etan, Santa Klara monastegian Tolosako artziprestaldeak deituta.
Tolosa. Eguberrietako argien pizte ekitaldia. 19:00etan izango da Gaztelako Atean. Parte hartuko dute Udaltaldeko ordezkariak, tolosaldeko Musika Bandak, Alde Zaharra eta Igazteko dendariek, Errealeko jokalariek.
Tolosaldea. Bai Euskal Herriari deialdia egin du bihar Durango *Nazio bat garelako, euskal herritarren eskubideak errespetatu, autodeterminazioa* lelopean egingo den manifestazioan parte hartzeko. Autobusak antolatuta dituzte. Izen-ematea ohiko lekuetan.

ERAKUSKETAK

Alegia. Abenduaren 10era arte Pilarxo Elosegiren margolanak Alegiko jubilatuen tabernan izango dira. Asteartetik igandera bitarte izango dira ikusgai, tabernako ordutegian.
Alegia. Azaro Kulturalaren baitako argazki erakusketa berezia: David Apreak prestatutako *Idi probak* ikusgai, Alegiko Kultur Etxean. Gaur izango da azken eguna.
Tolosa. *Esperientziak*, XX. mendeko memoriaren berreskuratze proiektuko elkarrizketen bideoak ikusgai, Aranburu jauregian eta Gipuzkoako Artxibo orokorrean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Erbiti, O. Lizagarra, 7. 112.
Tolosa. Azpiroz, M.L. Amaro auzoa, 9. 943 67 51 18.

IRRATIA

Txolarre irrata (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotza* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotza* (errepikapena).
20:00-21:00. *Goiko eskolatik betti*.
21:00-22:00. *Izarrak eta ilargia*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

«16 urte beranduago, berdin»

VILLABONA ▶ Miguel Zalakain preso politiko billabonatarra Martuteneko espetxean zendu zela hamasei urte bete direla-eta ekitaldiak egin dituzte



Miguel Zalakainen oroimenezko monolitoaren aurrean egin zuten omenaldian aureskuia dantzatu zuten. HITZA

ERREDAKZIOA

Orain hamasei urte, azaroaren 30ean zendu zen Miguel Zalakain euskal preso politikoa billabonatarra-bihotzekoak jota Martuteneko kartzelan. «Zuen gaixotasunari jaramonik egin ez, mediku asistentzia oker baten ondorioz hilotz aurkitu zuten bere ziegan. Espetxeko medikuak absoltituak izan ziren eta egun euren funtzioak betetzen jarraitzen dute espetxean». Horrela gogoratzen du Villabonako Amnistiaren Aldeko Mugimendua.

menduak Miguel Zalakainen heriotza, eta gaineratu: «16 urte beranduago ere euskal presoak espetxeetan hiltzen ari direnean, mediku asistentzia desegoki baten ondorioz». Herenegun egin zioten Zalakaini omenaldia Belabietan dagoen monolitoaren aurrean, familia eta lagunartean. Aureskuia dantzatu ondoren, *Eusko gudariak* abestu zuten. 50 lagun inguruk hartu zuten parte bertan. Gero, horietako gehienak Zunbeltzen egindako bazkarian elkartu ziren. Omenaldian bertan Iñaki de Juana

Chaos presoaren egoera izan zuten gogoan. «Uneotan espetxe politikaren helburu nagusia heriotz zigorra izaten jarraitzen duela baieztatzen duen kasu larria da», azaldu zuen presoaren eskubideen aldeko ekimenak. «Bi iritzi artikulatu idaztearren bizi osorako kondenatua beste hainbat euskal presorekin batera». Omenaldiaz gain, beste ekitaldi batzuk ere egin dituzte azken egunotan, Zalakainen heriotzaren urteurrenaren inguruan. Iragan ostegunean, elkarretaratzea egin zuten,

esaterako, eta ostiralean hitzaldia antolatu zuten Gurea aretoan. Ainhoa Baglietto euskal preso politikoen abokatuak, 25 urtez espetxean egondako Fernando Arburua psikologoak eta Xabin Juaristi Askatasuneko kideak hartu zuten parte. Hitzaldian egon zirenek, «egun espetxeetan bizi den egoeraren inguruko errelato oso interesgarria egin zuten, hala nola duela hamasei urte Miguel Zalakain bihotzekoak jota nola hiltzen zehatz mehatz azaldu zuten», azaldu dute ekitaldiko antolatzaileek.

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZaren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZaren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa